



**EUSKAL MENDIZALE
FEDERAZIOA**

Reglamento de Disciplina
Deportiva EMF

EMFren Kirol Diziplinari
buruzko Araudia

***EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAK
2007KO OTSAILAREN 17AN ELGETAN EGINDAKO
BATZARREAN ONARTUTAKOA***

KIROL DIZIPLINARI ETA LEHIAKETARI BURUZKO EMF-REN ARAUDIA
I. TITULUA

DIZIPLINA ERREGIMENA
I. KAPITULUA

Diziplina Erregimeneko Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Aplikagarria den araudia.

Euskal Mendizale Federazioaren (EMF, aurrerantzean) Diziplina Erregimena 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko X. Tituluan jasota dagoenaren arabera arautuko da, eta baita hori garatzeko xedapenen, EMFren Estatutuen eta Araudi honen arabera ere.

Araudi honetan arautzen den Diziplina Erregimena erantzukizun zibilarekiko edo penalarekiko independentea da, eta baita lan harremanetatik eratortzen den erregimenarekiko ere, kasu bakoitzean dagokion legediaren arabera arautuko baita berau.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

1.- Kirol diziplinaren esparruak lehiaketetako arauak edo jokabidea eta ondoren adierazten diren lege eta arauak urratzen edo hausten dituzten arau hausteak biltzen ditu: Kirol Legean tipifikatutako kirol arau orokorrak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan, Kirol Diziplinari buruzkoan, zehaztutakoak eta honen garapenerako gainerako xedapenak, EMFren Estatutuak eta Araudietakoak, eta Kirol Diziplinari eta Lehiaketari buruzko Araudi honetakoak.

2.- Lehiaketetako jokabide urratzeak edo arau hausteak proben edo lehiaketen garapenean hauen garapen normala kaltetzen, eragozten edo nahasten duten ekintzak dira.

3.- Kirol jarrera egokiari dagokionez arau haustetzat hartuko dira aurreko paragrafoan bildu ez arren kirol harremanen garapen normala kaltetzen edo oztopatzen duten ekintzak eta ez-egiteak ere.

4.- Halaber, EMFren kirol espezializazioetako lehiaketa araudiak aplikatzearen ondorioz gerta daitezkeen gorabehera edo gertakari guztiak ezagutzea eta ebatzea dagokio EMFri, bere Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen bidez; eta, halaber, araudi horien interpretazio zuzena egiteko irizpide egokiak ezartzea ere badagokio.

3. artikulua.- Aplikazio eremu subjektiboa.

1.- Lurralde Federazioek beren organo egituran dauden pertsonen, bertan biltzen diren taldeetako kirolari eta teknikarien, taldeen eta, oro har, federatuta dauden eta dagokien kirol modalitatea egiten duten pertsona guztien gainean diziplina ahalmena dute.

2.- Lurralde Federazioek, dagozkien eskumenen esparru horretan, beren diziplina ahalmena baliatuko dute kasu hauetan:

a) Esklusiboki lurralde maila edo izaera duten probak edo lehiaketak direnean.

b) Esklusiboki kirol izaera duten probetan edo lehiaketetan parte hartzen dutenean, federazio lizentziak dagokion Lurralde Federazioak izapidetu dituztenean.

c) Beste federazio batek izapidetutako lizentziak dituzten kirolariak parte hartzen badute ere, probaren edo lehiaketaren sustapena eta antolamendua Lurralde Federazioari dagokionean eta honen emaitzak ofizialki ez direnean autonomia erkidegoan, estatuan edo nazioarte eremuan homologatzen.

3.- Kirol diziplinaren arloan EMFk ahalmena du bere organo egitura osatzen duten erakunde eta pertsona fisiko guztien gainean; hauek dira, besteak beste: talde eta klubak, teknikariak, zuzendariak eta epaileak; halaber, diziplina ahalmena du berau osatzen duten Lurralde Federazioetako organo egituren gainean eta, oro har, federatuta egonda, beren kirol modalitateak garatzen dituzten pertsona eta erakunde guztien gainean ere.

4.- Aipatutako arlo horretan, artikuluko honetako 2. puntu biltzen ez diren kasu guztietan bere ahalmena lehen instantzian baliatuko du, eta bigarren instantzian, berriz, Araudi honetan eta kirol modalitate bakoitzeko Estatutuaren eta dagozkien arauetan aurreikusten diren kasuetan.

5.- EMFren dagokion diziplina ahalmena baliatzeko organo eskumendunak hauek dira: Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordea, Epaileak eta Federazioaren Ordezkariek. Azken bietan ahalmen hori proba edo lehiaketa garatzen ari den garaian izango dute.

Diziplina ahalmenak honen legezko titularrei gertakariak ikertzeko ahalmena esleitzen die, eta hala dagokionean, baita erantzule direnei dagokien zigorra ezartzeko ere.

4. artikulua.- Aplikaziorako lurralde eremua.

Araubide honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barnean gertatzen diren arau haustea zigortu ahal izango dira.

Halaber, Autonomia Erkidegotik kanpokoak ere zigortu daitezke, ondoren adierazten diren egoeretan gertatuz gero:

a) Arau haustea EMFren federazio lizentzia izatea.

b) Arau haustea ofizialki EMFren ordezkariz izatea eta beronen organo egituraren parte hartzea.

5. artikulua.- EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordea

EMFk bere diziplina ahalmena Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen bidez baliatuko du, eta batzorde hau lau kideek osatuko dute. Mendiko kirolarietako espezialitateei buruzko araudiak ondo ezagutu beharko dituzte, eta batzorde horretako kideek ezin izango dute posturik bete Lurralde Federazioetako Zuzendaritza Batzordeetan edo EMFkoan.

Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko kideak EMFren Lehendakariak izendatuko ditu. Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko Lehendakaria bertako kideek adostutakoa izango da, eta ados jartzen ez badira, EMFko Lehendakariak aukeratuko du.

Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak idazkaria izango du, eta batzorde honen bileretara joango da; hitza izango du bilera horietan, baina botorik ez du izango; bileren aktak egin beharko ditu, eta hartzen diren erabakiak bideratuko ditu. Berau izendatzea EMFko Lehendakariari dagokio.

Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko kideek beren funtzioak EMFko Lehendakariari dagokion epealdi berean bete beharko dituzte.

Lekuren bat hutsik gelditzen bada, EMFko Lehendakariak honen ordezkoa izendatu ahal izango du; eta bai kasu horretan eta bai batzordearen osaketan, EMFko Lehendakariak EMFko Batzar Nagusiari izendatutako pertsonak zein diren adierazi beharko dio eta, halaber, aukeratzeko arazoak azaldu beharko ditu. Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordea balio osoz eratu geratu da bileran bertako kideen gehiengo biltzen denean, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketaren bat gertatuz gero, bertako lehendakariak kalitateko botoa izango du.

Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak aholkulariak izendatu ahal izango ditu bere eskumenekoak diren gaietan, epaia eman aurretik aztergai duten gaia ahalik eta zehatzen ezagutu ahal izateko. Aipatutako aholkulari horiek beren txostena emango dute Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen eskariz, Batzordeak horrela erabakiz gero; eta honen bileretan parte hartu ahal izango dute, hitza izanez, baina botorik gabe.

6. artikulua.- Tipifizitate printzipioa eta zigor bikoitza debekatzea.

Ezin izango da inolako zigorrak ezarri ekintza batengatik edo zerbait ez egiteagatik, berori gertatu aurretik indarrean dauden xedapenetan arau haustetzat tipifikatuta ez baldin bazegoen; eta ezin izango da zentzagarrikeria ere ezarri, okerra egin aurretik arau ezarrita ez bazegoen. Modu berean, dagokion arau haustea egin aurretik zehaztu gabe zegoen zigorrak ere ezin izango dira ezarri.

Egintza beragatik ezin izango da zigor bat baino gehiago ezarri, araubide honek osagarri modura ezartzen dituen izan ezik, eta soilik horrela zehazten denean.

7. artikulua.- Prozesu bermearren printzipioa eta erantzukizun maila.

Diziplina araudian aurreikusitako eta xede horren arabera bideratutako prozeduraren arabera soilik ezarri ahal izango dira zigorrak.

Prozedura horretan izendatzen den pertsonaren laguntza eta espedientea ebatzi aurretik entzuteko aukera bermatuko zaizkie interesdunei.

Ebazpenek zigortzen den egitatearen tipifikazioa adierazi behar dute, eta urratutako araua eta ezar daitekeen errekurtsioa adieraziko dira bertan, zein organori zuzendu behar zaion eta horretarako zer epe dagoen ere argi utziz.

EMFren diziplina organoek, beren funtzioak betetzerakoan, zigor zuzenbideko irizpide informatzaileak bete beharko dituzte eta, dagokion arau hausterako aplikagarri diren gutxieneoak eta gehienekoak zehazten badira, zigorra ezartzerakoan bidezkoena iruditzen zaien mailan ezarri ahal izango dute; horretarako, egintzaren izaera, erantzulearen nortasuna eta erantzukizuna astuntzen edo arintzen duten baldintzak edo egoerak kontuan hartuko dituzte.

Aurrekoa gorabehera, aplikagarri den zigorra zehazteko, diziplina organoek huts egite horretan parte hartu duten eta tipifikatuta ez dauden gainerako inguruabarrak balioets ditzakete, besteak beste, arau haustearen ondorioak, gertaeren jatorria, kirol legeen aurkako jokabidearen hedapena edo haurren edo adingabeen aurrean egin izana.

8. artikulua.- Aldeko atzeraeraginezko printzipioa.

Diziplina xedapenek atzeraeragina dute arau hausleen alde jokatzeko dutenean, baita haiek argitaratu direnean ebazpen irmoa eman bada ere.

Aldeko xedapenen atzeraeragina, arau hauste horri dagokionez, eskumena duen organoak edo azken instantzian ebazpena eman duen organoak adierazi beharko du, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta.

Interesdunaren aldeko atzeraeragin hori eraginkor bihurtu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak ere organo horien eskumenean geldituko dira.

Atzeraeragina adierazteari edo dagozkion neurriak hartzeari uko eginez gero, Araudi honetan zehazten diren errekurtsioak jarri ahal izango dira.

II. KAPITULUA

Diziplina erantzukizuna

9. artikulua.- Inguruabar aringarriak.

Dena den, kirol diziplinako erantzukizunaren inguruabar aringarriak hauek izango dira:

- a) Arau hauslea berez damutzea.
- b) Probokazio nahikoa izan eta berehalaxe egitea arau haustea.
- c) Arau hausleak bere kirol bizitzan aurrez zigorra jaso duen arau hausterik egin ez izana.

10. artikulua.- Inguruabar astungarriak.

a) Kirol arloko diziplina erantzukizunaren inguruabar astungarritzat hartuko da berrizkatura, edo arau haustea berriro egitea. Aurrez ebazpen irmo baten bidez arau hauste bat dela eta norbait zigortzen denean, pertsona horrek kirol diziplinari dagokionez larritasun bera edo handiagoa duen arau hauste bat egiten badu, edo larritasun txikiagoko bi arau hauste edo gehiago egiten baditu, arau haustea berriz egin duela ulertuko da, eta beraz, berrizkaturatzat hartuko da.

Arau haustea gertatu zen unetik hasita urtebeteren buruan gertatuko beharko du berrizkaturak halakotzat hartzeko.

- b) Arau hauste horrekin mendiko kirolaren barneko modalitateen irudi onari kalte larriak eragitea.
- c) Arau haustearen bidez hirugarrenei kalte ekonomikoak eragitea.
- d) Ez onartzea berehala epailearen, arbitroaren edo federazioaren ordezkariaren erabakiak, men ez egite hori faltatzat hartu denean izan ezik.
- e) Egindako hutsegitearen ondorioz lehiaketaren garapen anormala eragitea.
- f) Federazioaren lizentzia izanda edo klub edo elkarteko zuzendaritzako kide izanda, ikusle modura hutsegite bat egitea.
- g) Aurrez pentsatua dela jakitea.

- h) Hutsegitea prezio, sari edo agindu bidez egitea.
- i) Nagusikeriaz jokatzera, edo defentsa ahultzen duen bideren bat erabiltzea.
- j) Hutsegitea zigorgabetasuna ziurtatzen edo ematen duen pertsona baten laguntzarekin egin izatea.
- k) Hutsegitea agintariak irainduz edo iraindutakoari zor zaion errespetuari eutsi gabe egin izatea.

11. artikulua.- Erantzukizuna iraungitzea.

Kirol diziplina arloan erantzukizuna iraungitzeko arrazoitzat hartuko dira honako hauek:

- a) Akusatua hiltzea.
- b) Zigortutako kluba edo kirol federazioa, erakundea edo pertsona juridikoa legez desegitea, bertako zuzendarien eta/edo kideen erantzukizunak aurrera jarraitzen duen edo ez aparte utzita.
- c) Zigorra betetzea.
- d) Arau hausteen edo ezarritako zigorren preskripzioa.
- e) Kirolari federatu izaera edo dagokion kirol elkarteko edo klubeko kide izaera galtzea. Izaera hori borondatez galtzen denean, iraungitzeko arrazoi honek soilik etendura izaera izango du.

Hiru urteko epean kirol diziplinari atxikita egoteko egoera berreskuratzen denean, erantzukizunari dagokion etendura aldia ez da aintzat hartuko arau hausteen eta zigorren preskripziorako. Horixe aplikatuko zaie kuotak ez ordaintzeagatik edo esparru ekonomikoko beste betebeharrak batzuk ez betetzeagatik EMF uztera behartutako akusatutako pertsonari edo erakundeei ere.

12. artikulua.- Arau hausteen preskripzioa.

Oso larriak diren arau haustea arau haustea egin zen egunaren biharamunetik hasita hiru urte pasatzean indargabe geldituko dira, arau hauste larriak urtebete pasatzean, eta arau hauste arinak hilabete pasatzean.

Zigor prozeduraren hasiera jakinarazten denean, eten egingo da preskripzio epea, baina aipatutako prozeduraren menpean dagoen pertsonari edo erakundeari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozedura hilabetez baino gehiagoz geldirik badago, dagokion epeak aurrera jarraituko du, eta eten egingo da berriro espediente berri bideratzen denean.

Honen ondorioetarako, prozedura geldirik dagoela ulertuko da horretarako aurreikusitako epeak agortu badira, besterik bidean ez badago eta hurrengo hamabost lanegunetan inolako probidentziarik onartzen ez bada.

13. artikulua.- Zigorren preskripzioa.

Arau hauste oso larrien, larrien edo arinen zigorrak indargabe geldituko dira hiru urte, urtebete edo hilabete pasatzean, eta preskripzio epea zigorra ezarri zuen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasita da, edota hau hasita badago, berau betetzeko eginkizuna eteten den egunean.

III. KAPITULUA

Arau haustea eta zigorrak

1. ATALA

Arau haustea

14. artikulua.- Arau hausteen sailkapena, beren larritasunaren arabera

Arau haustea oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke, beren larritasunaren arabera.

15. artikulua.- Oso larriak diren arau hauste arruntak.

Lehiaketako arauak edo kirol arau orokorrak larriki hausten direlako arau hauste oso larritzat hartuko dira honako kasu hauek:

- a) Federazioko agintaritzaren, epaile arbitroen eta Araudi hau bete behar duten eta kirol jardueren arduradun diren gainerako guztien agintekeriako egintzak.

- b) Ezarritako zigorrak haustea, isunak ez ordaintzea barne hartuta.
Zigorrak bete beharrekoak diren kasu guztietan hartuko da kontuan zigorra haustea. Babes neurriak hausten direnean ere erregimen bera aplikatuko da.
- c) Prezio, beldur edo erabaki soilez proba edo lehiaketan emaitzak alde aurretik erabakitzeko edo berauek bertan behera utzarazteko ekintzak.
- d) Kirolarien edo zuzendarien jokabide, jarrera eta keinu oldarkorrak edo kirol legerik gabekoak, epaile arbitroen aurka, beste kirolarien edo zuzendarien aurka edo publikoaren aurka zuzentzen direnean eta bereziki larriak direnean.
- e) Zuzendariak, teknikariak, epaile arbitroak edo kirolariak edo bazkideak lehiakideei, taldeei edo ikusleei indarkeria bultzatuz egindako adierazpenak.
- f) Arrazoirik gabe Euskal Selektzioaren deialdietara ez joatea. Eragin hauetarako, deialdia entrenamenduei nahiz proba edo lehiaketa ospakizunari berari dagokie.
- g) Bazterketa sustatzen duten herrialdeek antolatutako proba edo lehiaketetan edo nazioarteko erakundeek kirol arloan zigortutako herrialdeek antolatutakoetan parte hartzea; edo herrialde horien ordezkari diren kirolariak dituztenean parte hartzea.
- h) Kirol duintasunaren edo begirunearen aurka nabarmenki edo jendaurrean jardutea, larritzat jo daitezkeenean. Halaber, oso hutsegite larritzat hartuko da arau hauste larriak berriro egitea.
- i) Kirol espezialitate bakoitzeko arau teknikoak kontra kirol materiala edo ekipamendua manipulatzeko edo aldatzea, pertsonalki edo beste pertsona batzuen bidez, probaren edo lehiaketaren segurtasuna arriskuan jar dezaketenean edo pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketenean.
- j) Inolako arrazoirik gabe probetara, topaketetara edo lehiaketetara ez joatea edo proba, topaketa edo lehiaketa uztea.
- k) Kirol Diziplina Batzordearen ebazpenak ez betetzea.
- l) Proba edo lehiaketa bat egitea oztopatzen duten edo bertan behera utzarazten duten protestak, larderiazko ekintzak edo indarkeriazko jokabideak, banakakoak, taldekakoak nahiz liskar nahaspilatsuen bidez bideratutakoak.
- m) Talde edo klubean, elkartean edo federazioan betetzen duen karguagatik ezagutzen dituen gaietan sekretu izaera urratzea.
- n) Federazioen, elkarten edo klub eta taldeen erabakien aurkako errebeldiazko ekintzak.
- o) Oso modu larrian EMFko kirol espezialitateen edo hauen ordezkarien duintasunaren aurka egiten duen jokaera.
- p) Kirol edo federazio agintariak irainduz edo hauek gutxietsiz egindako adierazpen publikoak, edo komunikabideen bidez egindakoak.
- q) Epaile arbitroen, teknikarien, zuzendarien eta gainerako kirol agintarien aurkako erasoak eta hauek emandako aginduak eta jarraibideak nabarmen desobeditzea.
- r) Doloz, instalazioei, kirol materialari eta natur inguruneari kalte larriak egitea.
- s) Natur ingurunean nahita material arriskugarriak uztea.
- t) Proba bat, lehiaketa bat edo kirol jarduera bat egiterakoan hirugarrenei kalteak ekar diezazkieketen jarduerak egitea, zabarkeriaz.
- u) Hirugarrenei laguntza emateko betebeharra ez betetzea, horrek hirugarrenei ondorio larriak ekar diezazkiekeenean.
- v) Oro har behar bezala hornituta daudelako ezagunak diren bideetan segurtasun materiala nahita hondatzea, osorik edo partzialki.
- w) Proba, topaketa edo lehiaketa egin aurretik, berau egiten ari den bitartean eta ondoren ordena nahastea saihesteko beharrezkoak diren prebentzio neurri guztiak ez hartzea eta, oro har, maiatzaren 21eko 769/1993 Errege Dekretuan, Kirol Ikuskizunetan Indarkeria Prebenitzeko Araudia onetsi zuenean, ezartzen dena nabarmen eta larriki ez betetzea.

16. artikulua.- Zuzendarien arau hauste oso larriak.

Oso larritzat hartzen diren eta goiko artikuluan zehaztu diren ohiko arau hausteez gain, EMFko Lehendakariaren eta kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeetako gainerako kideen arau hauste berezi oso larritzat hartuko dira ondoren adierazten diren hauek:

- a) Batzar Nagusian hartutako erabakiak, Hauteskunde Araudiak eta Estatutuetako eta araudietako gainerako xedapenak ez betetzea.

- Larriak diren edo garrantzi berezia duten betebeharrak ez betetzea hartuko da arau haustetzat.
- b) Legezko epeetan eta baldintzetan, taldeko federazio organoei biltzeko deia ez egitea, sistematikoki eta behin eta berriro.
 - c) Dirulaguntzetako, kredituetako, abaletako eta gainerako laguntzetako diru publikoak eta pribatuak oker erabiltzea.
 - d) Halaber, oso arau hauste larritzat hartuko da EMFk eta Lurralde Federazioek edo Klub eta Elkarrekin, EMFren Batzar Nagusian zehaztu eta onartutako prozesuaren arabera, kirol lizentziak ez bideratzea edota ematea, inolako arrazoirik gabe.

Halaber, oso huts egite larritzat hartuko da federazioaren lizentziak edo bestelako agiriak aldatzea, manipulatzeko edo faltsutzea, federatuek, klub, talde edo elkarrekin, epaile arbitroek, entrenatzaileek, antolatzaileek edo EMFko gainerako beste edozein kidek edo berorietan sartzeko interesa agertu dutenek adierazitakoaren kontra.

17. artikulua.- Arau hauste larriak.

Arau hauste larritzat hartuko dira ondoren adierazten diren hauek:

- a) Epaile arbitroengandik, teknikariengandik, zuzendariengandik eta gainerako kirol agintariengandik datozen aginduak eta jarraibideak nabarmen eta behin eta berriro desobeditzea.
- b) Kirol duintasunaren edo begirunearen aurka nabarmenki edo jendaurrean jardutea, eta oro har, kirol arauen aurkako jokaera izatea, betiere oso hutsegite larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituenen.
- c) Kirolarien, teknikarien edo zuzendarien jokabide, jarrera eta keinu oldarkorak edo kirol legerik gabekoak, epaile arbitroen, beste kirolarien edo publikoaren aurka zuzentzen direnean, baina oso hutsegite larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituztenean.
- d) Betetzen den kirol jarduerarekin edo funtzioarekin bateragarria ez dela adierazten denean, jarduera publiko edo pribatu hori betetzea.
- e) Federazioaren taldeko organoei biltzeko deia ez egitea lege zehaztutako epe eta baldintzetan.
- f) Aurrekontua eta ondarea kudeatzeko administrazio arauak ez betetzea.
- g) Kirol arau teknikoaren kontra kirol materiala edo ekipamendua manipulatzeko edo aldatzeko, pertsonalki edo beste pertsona batzuen bidez.
- h) Inolako arrazoirik gabe probetara, topaketetara edo lehiaketetara ez joatea edo proba, topaketa edo lehiaketa uztea, betiere ekintza horrek oso hutsegite larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituenen.
- i) Federazioaren probak, lehiaketak, batzarrak edo bilerak normaltasunez garatzea oztopatzen duten protestak, larderiazko ekintzak edo indarkeriazko jokabideak, banakakoak, taldekakoak nahiz liskar nahaspilatsuen bidez bideratutakoak.
- j) Suminduta eta nabarmen epaile arbitroen, teknikarien, zuzendarien eta gainerako kirol agintarien aurka norbanakoak egindako protestak.
- k) Proba, topaketa edo lehiaketa egin aurretik, berau egiten ari den bitartean eta ondoren ordena nahastea saihesteko beharrezkoak diren prebentzio neurri guztiak ez hartzea, oso hutsegite larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituenen.
- l) Inolako arrazoirik gabe Euskal Selektzioaren entrenamenduetara eta elkarretaratzeetara ez joatea.
- m) Bazterketa sustatzen duten herrialdeek antolatutako proba edo lehiaketetan edo nazioarteko erakundeek kirol arloan zigortutako herrialdeek antolatutakoetan parte hartzea; edo herrialde horien ordezkari diren kirolariak dituztenean parte hartzea, kirolariak egoera horren berririk ez zutela berresten dutenean.
- n) Nahita, kirol instalazioak edo natur ingurunean daudenak hondatzea, ekintza hori oso larritzat hartu ezin denean.
- o) Proba bat, lehiaketa bat edo kirol jarduera bat egiterakoan hirugarrenei kalteak ekar diezazkieketen jarduerak egitea, jarduera horrek ondorio materialik edo fisikorik ez duenean.
- p) Hirugarrenei laguntza emateko betebeharra ez betetzea, horrek hirugarrenei ondorio arinak ekar diezazkiekeenean.
- q) Ahoz nahiz idatziz Kirol Diziplina Batzordeari irainak eta begirunerik gabeko adierazpenak zuzentzea eta haien esanei men ez egitea.

18. artikulua.- Arau hauste arinak.

Arau hauste arinak argiro kirol arauen kontra doazenak eta arau hauste oso larrien edo larrien barruan sartzen ez direnak izango dira.

Dena den, hauek izango dira arau hauste arinak:

- a) Epaile arbitroei, teknikariei, zuzendariei eta gainerako kirol agintariei, beren eginkizunak betetzen ari direnean, modu desegokian oharrak egitea. Bereziki, ahoz nahiz idatziz Kirol Diziplina Batzordeari irainak eta begirunerik gabeko adierazpenak zuzentzea eta hauen esanei men ez egitea, betiere arau hauste horrek larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituenean.
- b) Publikoarekin, kideekin eta mendekoekin egoki ez jokatzea.
- c) Epaile arbitroek, teknikariek eta kirol agintariek beren eginkizunen barruan emandako aginduak eta jarraibideak betetzerakoan jarrera pasiboa hartzea.
- d) Kirol ekipoak, instalazioak edo natur ingurunea zaintzerakoan utzikieriaz edo arretarik gabe jokatzea.
- e) Barka daitekeen axolagabekeriagatik edo zabarkeriagatik kirol arauak edo aginduak ez betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak.
- f) Kirol modalitateen araudietan biltzen direnak, eta aurreko artikuluetan tipifikatu ez direnak.
- g) Proba, topaketa edo lehiaketa egin aurretik, berau egiten ari den bitartean eta ondoren ordena nahastea saihesteko beharrezkoak diren prebentzio neurri guztiak ez hartzea, egintza horrek hutsegite larritzat edo oso larritzat hartzeko ezaugarriak ez dituenean.

19. artikulua.- Berariaz dopatzearekin lotutako arau hausteak

Kirolariak behartuta daude doping kontrola egitera, ekainaren 11ko 14/1998 Legean, Euskadiko Kirolari buruzkoan, eta berau garatzen duten arauetan zehazten dena betez; eta, bereziki, Euskal Herrian kirolean dopatzearen aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea arautzen dituen Dekretuan ezarritakoa betez.

Ondoren adierazten diren arau hauste hauek oso larritzat hartuko dira:

- a) Debekatutako substantziak eta talde farmakologikoak erabiltzea, edota kirolarien gaitasun fisikoak artifizialki areagotzera edo emaitzak aldatzera zuzentzen diren arau kanpoko metodoak erabiltzea probetan, lehiaketetan edota kirol jardueretan.
- b) Substantzia edo metodo horiek sustatzea edo berorien erabilera bultzatzea. Sustapentzat hartuko da substantzia horiek helaraztea edo ematea, edota baita arauzkoak ez diren metodoak praktikara eramaten laguntzea ere.
- c) Uko egitea doping kontrolak egiteari, bai lehiaketa barnean eta bai lehiaketaz kanpo, eskumena duten organoek edo pertsonak hala eskatzen dietenean; edota instalazioak edo kirol kontrol proba egiteko aukeratuak zein izan diren jakin aurretik uztea.
- d) Dopingaren aurka egiteko prozedurak zuzen egitea zailtzen edo oztopatzen duen egintza oro edo ez-egite oro.
- e) Debekatutako substantziak kirol jarduera egiterakoan kalte handiagoak saihesteko erabili direla eta kirolariak arrisku handia zutela egiaztatzen denean, ez da kirol diziplina hautsi dela kontsideratuko.

Halaber, ez da kirol diziplina hautsi dela kontsideratuko debekatutako substantziak medikuaren aginduz erabili direnean. Kasu horretan, kirolariak EMF jakinaren gainean jartzeko obligazioa du, eta tratamenduak dirauen bitartean probetan, lehiaketan eta kirol jardueretan parte hartzeari uko egingo dio.

2. ATALA

Zigorrak

20. artikulua.- Oso larriak diren arau hauste arruntei dagozkien zigorrak.

Oso larriak diren arau hauste arruntei dagozkien zigorrak hauek dira:

- a) 3.000,-€-tik gorako eta 12.000,-€-tik beherako isunak.
- b) Puntuazioarekiko probetan edo lehiaketetan, puntuak edo sailkapen postuak galtzea.
- c) Probak edo lehiaketak egiten diren lekuetan sartzeko debekua, gehienez ere bost urteko epean.

- d) Kirol antolakuntzan karguak betetzeko gaitasungabetzea, edo aldi baterako federazioaren lizentzia kentzea, bi urtetik bost urtera bitartean, egin den arau hausteari dagokion proportzioan.
 - e) Kirol antolakuntzan betirako karguak betetzeko gaitasungabetzea, edo federazioaren lizentzia kentzea.
 - f) Arau haustea gertatu den lehiaketako titulua, marka, garaikurra edo saria galtzea.
- Zigor haur aparteko larritasuna duten arau hausteak berriro egin izanagatik eta salbuespen izaeraz soilik erabaki ahal izango da.

Araudi honetako 19. artikuluan tipifikatu diren eta kirol diziplinarekin lotuta dauden arau hauste arrunt oso larriei zigor hauek dagozkie:

a) Kirolariei ezarriko zaizkien zigorrak.

1.- 19. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako arau hausteak egiteagatik, substantzia hauek direnean:

- o Pizgarriak (A mota).
- o Analgesiko narkotikoak.
- o Anestesiko lokalak.
- o Kanabisa eta honen deribatuak; federazioaren lizentzia eten edo kendu egingo da bi urtetik hirura bitartean eta, hala dagokionean, 1.000,-€-tik 3.000,-€-ra bitarteko isuna jarriko da; eta gainera, arau haustea egin den lehiaketan lortutako tituluak, markak, garaikurrak eta sariak galduko dira.

2.- 19. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten diren arau hausteak egiteagatik, eta ondoren adierazten diren debekatutako substantziak edo metodoak erabiltzen direnean:

- o Bizigarriak (B mota).
- o Anabolizatzaileak.
- o Esteroide anabolizatzaile androgenikoak.
- o Eragin anabolizatzailea duten beste substantzia batzuk.
- o Hormona peptidiko eta glikoteinikoak
- o Kortikosteroideak.
- o Odol dopinga; federazioaren lizentzia eten edo kenduko da bitik lau urtera bitartean, eta hala dagokionean, 3.000,-€-tik 12.000,-€-ra bitarteko isuna jarriko da; gainera, arau haustea egin den lehiaketan lortutako tituluak, markak, garaikurrak eta sariak galduko dira, eta etenaldi horrek dirauen bitartean ezin izango da dirulaguntzarik eskuratu.

3.- 19. artikuluko b) idatz-zatian aurreikusitako arau hausteengatik, artikuluko honetako 1. idatz-zatian aurreikusten diren zigorrak ezarriko dira.

4.- 19. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusten diren arau hausteengatik, artikuluko honetako 2. idatz-zatian aurreikusten diren zigorrak ezarriko dira.

21. artikulua.- Zuzendarien arau hauste oso larriei dagozkien zigorrak.

Araudi honetako 16. artikuluan tipifikatu diren arau hauste oso larriek ondoren adierazten diren zigorrak izango dituzte:

a) Ohartarazpen publikoa.

Ondoren adierazten diren kasuetan ezarriko da zigor hau:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten den arau hauste bat egin delako.

2.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusten den arau hauste bat egin delako, okerreko erabilera horrek dagokion elkarte horren urteko aurrekontu osoaren % 1 gainditzen ez duenean.

b) Aldi baterako gaitasungabetzea, bi hilabetetik urtebete bitartekoa.

Ondoren adierazten diren kasuetan ezarriko da zigor hau:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten den arau hauste bat egin delako, arauak eta erabakiak ez betetze hori oso egoera larrietan gertatzen denean, kirol diziplinako organo eskudunak aurretiaz dagokion dei formala egin ondoren.

2.- Erabaki eta arauak ez betetze horrek elkartekideen eskubide subjektiboak mugatzea dakarrenean izango du izaera hau arau hauste horrek.

3.- 16. artikuluko b) idatz-zatian aurreikusten den arau haustea egiteagatik.

4.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusten den arau haustea egiteagatik, bai okerreko erabilerak EMFren urteko aurrekontuaren % 1 gainditzen duenean, bai astungarri modura arau haustean berriro erori denean.

c) Kargutik kentzea.

Ondoren adierazten diren kasuetan ezarriko da zigor hau:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten den arau haustea egiteagatik, eta astungarri modura arau hauste horretan berriro erortzen denean, kasu honetan urte berean.

2.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusten den arau haustea egiteagatik, okerreko erabilera horrek erakunde horren urteko aurrekontu osoaren % 1 gainditzen duenean eta, gainera, astungarri modura arau haustean berriro erortzen denean.

22. artikulua.- Arau hauste larriei dagozkien zigorrak.

1.- Araudi honetako 17. artikuluan tipifikatutako arau hausteei ondoren adierazten diren zigor hauek dagozkie:

a) Ohartarazpen publikoa.

b) 600,-€-tik 3.000,-€-ra bitarteko isuna.

c) Puntuazioarekiko probetan edo lehiaketetan, puntuak edo sailkapen postuak galtzea.

d) Probak edo lehiaketak egiten diren lekuetan sartzeko debekua, gehienez ere bi urteko epean.

e) Kirol antolakuntzan karguak betetzeko gaitasungabetzea, edo federazioaren lizentzia kentzea urtebetetik bi urtera bitartean.

f) Arau haustea gertatu den lehiaketako titulua, marka, garaikurra edo saria galtzea.

g) Federazioaren lizentziaren etenaldi garaian edo berau galtzen den epean dirulaguntzak izateko aukera galtzea.

Arau hauste larrietan berriro erortzen diren kasutan soilik erabaki ahal izango dira d) eta f) idatz-zatietan adierazten diren zigorrak.

2.- Kirol diziplinarekin eta dopingarekin lotutako arau hauste arrunt larriak, Araudi honetako 19. artikuluan tipifikatzen direnak, eginez gero, hauek dira ezarriko diren zigorrak:

a) Kirolariei ezarriko zaizkien isunak.

1.- 19. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako arau hausteak egiteagatik, substantzia hauek direnean:

- Pizgarriak (A mota).
- Analgesiko narkotikoak.
- Anestesiko lokalak.
- Kanabisa eta honen deribatuak; federazioaren lizentzia eten edo kendu egingo da urtebetetik bira bitartean eta, hala dagokionean, 600,-€-tik 1.000,-€-ra bitarteko isuna jarriko da; gainera, arau haustea egin den lehiaketan lortutako tituluak, markak, garaikurrak eta sariak galduko dira. Eta federazioaren lizentzia eten edo galtzen den denboraldian dirulaguntzak jasotzeko aukera oro galduko da.

2.- 19. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten diren arau hausteak egiteagatik, eta ondoren adierazten diren debekatutako substantziak edo metodoak erabiltzen direnean:

- Pizgarriak (B mota).
- Anabolizatzaileak.
- Esteroide anabolizatzaile androgenikoak.
- Eragin anabolizatzailea duten beste substantzia batzuk.
- Hormona peptidiko eta glikoteinikoak

- Kortikosteroideak.
- Odol dopinga; federazioaren lizentzia eten edo kenduko da urtebetetik bira, eta hala dagokionean, 1.000,-€-tik 3.000,-€-ra bitarteko isuna jarriko da; gainera, arau haustea egin den lehiaketan lortutako tituluak, markak, garaikurrak eta sariak galduko dira. Eta etenaldi horrek dirauen bitartean ezin izango da dirulaguntzarik eskuratu.
- Federatu batek 19. artikuluan aurreikusten diren arau hausteetako bat lehen aldiz egiten duenean, dagokion eskalan adierazten den gutxieneko zigorra ezarriko zaio.
- Dopingaren esparruan arau haustea bigarren aldiz egiten badu, oso arau hauste larritzat hartuko da, eta 20. artikuluari dagozkion isunak ezarriko zaizkio.

b) Talde eta klubei ezarriko zaizkien isunak.

1.- Araudiko 19. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten diren arau hausteei honako isun hauek dagozkie:

- 1.000,-€-tik 3.000,-€-ra bitarteko isuna.
- Puntuak edo sailkapen postuak galtzea.
- Dirulaguntzak galtzea, gehienez ere urtebeteko epean.

2.- Dirulaguntzen kasuan, soilik osagarri izaera izan dezake.

c) Zuzendariei, teknikariei, sendagileei eta epaile arbitroei dagozkien isunak.

1.- Araudi honetako 17. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusten diren arau hausteei ondoren adierazten diren isun hauek dagozkie:

- 1.000,-€-tik 3.000,-€-ra bitarteko isuna.
- Federazioetan eta kirol erakunde eta elkarteetan kargu bat betetzeko gaitasungabetzea, eta federazioaren lizentzia kentzea edo etetea, urtebetetik bi urtera bitartean.

2.- Arau hausleak kirol talde, klub edo elkarte baten ordezkari modura jokatzeko duenean, aurreko idatz-zatian aurreikusitako zigorrak honi ezar dakizkioke, pertsona horri pertsonalki ezar dakizkiokeenez gain.

3.- Halaber, artikuluko honen xedapenak bete behar dituzte proba eta lehiaketetako sendagile eta laguntzaileek, eta baita federazio araudiaren arabera, talde teknikoan parte hartzen duten gainerako pertsona guztiak ere.

23. artikulua.- Arau hauste arinei dagozkien zigorrak.

Arau hauste arinei ondoren adierazten diren zigorrak hauek dagozkie:

- a) Ohartarazpena.
- b) 600,-€ arteko isuna.
- c) Karguak betetzeko gaitasungabetzea edo kargutik kentzea 6 hilabetetik urtebetara bitartean.

24. artikulua.- Zigorrak zehazteko eta ezartzeko arau arruntak.

1.- Diziiplina organoek, kasu bakoitzean dagokion arau hausterako aurreikusitako zigorretatik edota, areago, larritasun txikiagoko arau hausteetarako aurreikusten diren zigorretatik zuzenenak iruditzen zaizkienak ezarri ahal izango dituzte, eta egintzen izaeraren arabera, erantzukizun mailaren arabera eta inguruabar astungarririk edo aringarririk baden kontuan hartuta mailakatuko dituzte.

- Diziiplina organoek, beren diziiplina ahalmena gauzatzeko, kontuan hartuko dute EMFko kirol espezialitateetarako bakoitzean Lehiaketa Araudiak zer dioen.
- Bi inguruabar astungarri edo gehiago izaten badira eta inguruabar aringarririk ez bada, zigorra bere mailarik gorenean ezarriko da; modu bertsuan, bi inguruabar aringarri badaude, edota inguruabar aringarri nabarmen bat badago eta astungarririk ez bada, zigorra bere mailarik txikienean ezarriko da.

2.- Etendura proba edo lehiaketa kopuru baterako izan daiteke, edota baita denboraldi baterako ere:

- a) Proba edo lehiaketetarako etenduratzat hartuko da proba edo lehiaketa batetik denboraldi bateko guztietara arte zehazten dena.

Proba edo lehiaketa kopuru jakin baterako etendurak zigorrak hartzen dituen estatuko eta nazioarteko proba eta lehiaketa ofizialetan eta epaitzaren datatik gertu direnetan parte hartzeko debekua adierazten du, eta lehiaketan egutegi ofizialetan azaltzen diren ordenan, nahiz eta arrazoi batengatik edo besteagatik, proba bat edo lehiaketa bat atzeratu edo bertan behera gelditu delako, adibidez –egutegiaren aldaketa ofizialagatik egiten direnak salbuespentzat hartuta–, hasieran programatutako egunean ez egin proba edo lehiaketa horiek eta, gero, ondorengo datetarako adierazitako beste proba edo lehiaketa batzuk izan.

Zigorrak erreferentzia egiten dien proba edo topaketen kopurua denboraldia amaitzeko gelditzen diren kopurua baino handiagoa bada, hurrengo denboraldikoekin osatuko da kopuru hori. Zigorra betetzeko gelditzen diren proba edo lehiaketa horiek hurrengo denboraldian kirolariak parte hartzen duen kategorian bete beharko dira, nahiz eta kirolari horrek aurreko denboraldiko kategoria utzita beste batean parte hartu.

- b) Denboraldi baterako etenduratzat denboraldi jakin bati erreferentzia egiten diotenak hartuko dira; zigor hori bete behar duenak ezin izango du denboraldi horretan inolako proba edo lehiaketatan parte hartu, berau edonolako izanik ere, eta proba edo lehiaketa ofizialik gako hilabeteak ez dira konputagarriak izango.
- c) Dagokion denboraldia gainditzen badu, epe konputagarri hori berriro ere lehiaketa ofiziala hasten denean hasiko da.
- d) Lehiaketa ofizialaren hasieran federazioaren lizentziarik izenpetuko ez balu, federazioaren lizentzia berria eskatzen duen unetik hasiko da berriro kontuan hartzen etendura horri dagokion aldia, bai talde edo klub beraren bidez egiten denean eta baita beste baten bidez egiten denean ere. Bi kasuetan, federazioaren lizentzia igorri ez bada, EFMk atxikita edukiko du zigorra erabat bete arte.

Etendura zigorra ezarri zaion pertsonak ezin izango du zigorrak dirauen bitartean kluba edo taldea aldatu. Kirolari bat kanporatzen edo deskalifikatzen denean, hurrengo proba edo lehiaketetarako etenaldian dagoela ulertuko da, Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordea bere epaitza ematen duen artean.

Ezartzen zaion zigorra betetzeko ondorioetarako, kontuan hartuko da behin-behineko etendura hori. Dena den, jokabide hori jokabide okertzat hartuko da hutsegite hori zigortuz edo zigortu gabe Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak eman beharreko epaitza hartzeke dagoen bitartean. Hala ere, batzorde horri egoki iruditzen zaionean edo alde batek horrela eskatuta, pertsona horri parte hartzeko baimena eman diezaiokete, beharrezko aurrekariak bildu eta epaitza eman bitartean.

Etendura zigorrak zigorraren xede den jarduerarako gaitasungabetu egingo du arau hauslea. Federazioaren lizentzia kentzean edo gaitasugabetzean datzan zigorrak, zigorra ezarri den jarduerarako gaitasugabetzeaz gain, mendiko kirolekin lotutako beste edozein jarduera garatzeko ere gaitasungabetu egiten du.

25. artikulua.- Diru zigorrak.

Kirolariei, teknikariei eta epaile arbitroei isun izaerako zigorrak beren eginkizunak betetzeagatik ordainsaria jasotzen dutenean ezarri ahal izango zaizkie; arlo honetan, eduki ekonomikoko saria duen proba batean edo lehiaketa batean kirolari batek arau hausteren bat egiten badu, isun izaerako zigorra aplikagarri dela ulertuko da. Zigorrak ezin izango du gainditu ematen den saria.

Egindako arau haustearen arabera diziplina organoei egoki iruditzen zaien beste edozein zigorrekin batera ezar daiteke isun izaerako zigorra; honen zenbatekoa, zehaztuta dauden gehieneko mugen barnean, zigorra ezartzeko eskumena duen organoak zehaztuko du, izan diren inguruabarrak kontuan hartuta.

Isunak ordaintzeko epea isuna ezarri den egunetik hasita hamar lanegunekoa izango da gehienez ere, eta erabaki den organoari ordaindu beharko zaio. Isun horiei dagozkien zenbatekoak bere kirol helburuetarako erabiliko ditu EMFk.

Isunaren ordainketa dagokion ordainagiria bidaliz egiaztatu beharko da, eta isuna ez ordainduz gero, zigorra hautsi duela ulertuko da.

Arau hauste bererako aldi berean, izaera desberdineko beste zigor batekin batera, isunak ezar daitezke, dagokion arau haustearen kategoriarako aurreikusita badaude eta, bere osotasunean, arau haustearen larritasunarekin bat badatoz.

26. artikulua.- Emaitzak aldatzea.

Ezar daitezkeen diziplina zigorrak direnak izanik ere, Kirol Diziplina Batzordeak proben edo lehiaketen emaitzak aldatzeko ahalmena izango du, prezio, beldur edo erabaki soilez edo modu irregularrean emaitzak aldatu edo baldintzatu direnean.

II. TITULUA **DIZIPLINA PROZEDURA**

IV. KAPITULUA **Diziplina prozedura**

1. ATALA **Printzipio orokorrak**

27. artikulua.- Aplikagarria den araudia

Diziplina arloko arau hauste mota guztiei dagozkien zigorrak ezartzeko jardunbidea edo prozedura Kapitulu honetan jasotzen denaren, administrazio eta zigor zuzenbidearen esparruko arau eta printzipioen arabera arautuko da.

28. artikulua.- Erantzukizun penalak gertatzea.

1.- Diziplina organo eskudunek, ofizioz edo espedientearen Instruktoreak hala eskatuta, Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkiote delitu edo hutsegite penal izaera izan dezaketen arau haustekak.

2.- Horrelakoetan, kirol arloko diziplina organoek prozedura etetea erabakiko dute, gertatu diren inguruabarrak aintzat hartuta, epaileak bere ebazpena eman arte. Kasu zehatz bakoitzean, diziplina organoek egintza horretan gertatu diren inguruabarrak balioetsiko dituzte, kirol arloko diziplina espedientea etetea edo berorri jarraipena ematea erabakitzeko, arrazoiak emanda, epaileak bere ebazpena eman arte edo, hala badagokio, zigorra ezarri arte.

3.- Prozedura etetea erabakitzen bada, babes neurriak hartu ahal izango dituzte, interesdun guztiei jakinarazitako probidentzien bidez.

Artikulu honetan aurreikusten diren arrazoiaren ondorioz prozedurak etenda dirauen bitartean, dagokion arau hauste horretan ez du preskripzioak aurrera egingo. Dagokion prozedura penalarri amaiera emango dion epailearen ebazpen irmoa eman ondorengo bi hilabetean diziplina espedientea berritzen ez bada soilik egingo du aurrera preskripzioak.

29. artikulua.- Prozeduran interesak dituztenak.

Kirol diziplinako prozedura bat gauzatzeak pertsona edo erakunde bati legez dagozkion eskubideak eta interesak urra ditzakeenean, honek prozedura horretan pertsonatzeko aukera izango du, eta hortik aurrera eta jakinarazpen, proposizio eta froga gauzatzearen ondorioetarako, interesdun izaera izango du.

Prozeduran pertsonatutako interesdunek bertan lagunduko dien eta beren ordezkari izango den pertsona fisiko bat izenda dezakete, eta beronen helbidea eman dezakete, jakinarazpen eta deietarako.

30. artikulua.- Zigorren erregistroa.

EMFk, Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko Idazkariaren bidez, Zigorren Erregistroa eramango du, besteak beste, erantzukizuna alda dezaketen inguruabarrak eta arau hausteen eta zigorren preskripzioa ekar dezaketenak zehazteko.

Diziplina organoek ezartzen dituzten zigorren berri eman beharko diote EMFri, aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako.

2. ATALA

Prozeduraren instrukziorako eta zigorrak ezartzeko organo eskudunak

31. artikulua.- Epaile eta arbitroak eta ordezkari teknikoak.

Proba edo lehiaketa bat garatzen ari den bitartean proba edo lehiaketa horretako arauak arinki hausten direnean, epaile edo arbitroak eta ordezkari teknikoak zigorra ezartzeko eskumena izango du, eta kasu horretan EMFren diziplina organo modura jokatu du; arau hauste arin horiek kirol modalitate bakoitzari dagokion Lehiaketa Araudian zehazten direnak izango dira, 18. artikuluk f) idatz-zatian aipatzen direnak.

Zigor horiek “in situ” ezar daitezke, inolako izapiderik egin beharrik gabe, eta berehala betetzekoak izango dira; dena den, interesdunak errekurtsoa jartzeko eskubidea izango du Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen aurrean, gehienez ere bi laneguneko epean, egoki irizten den moduan fede emanaz; aurreko epea amaitu ondorenetik hasita bi laneguneko epean ebatziko da berau.

Dena den, Epaileek, Arbitroek eta/edo Ordezkari Teknikoek sinatutako aktak eta hauei dagozkien adierazpenak, argibideak, txosten osagarriak edo hedapenak egiazkotzat hartuko dira, ageriko oker materialen bat dagoenean salbu, eta kasu horretan Zuzenbidezko edozein bitarteko erabiliz egiaztatu ahal izango da hori.

32. artikulua.- EMF

EMFk zuzeneko eskumena izango du berariaz zigortzeko ahalmena Epaile edo Arbitroei eta Ordezkari Teknikoei ez dagozkien arau hauste guztiez arduratzeko.

33. artikulua.- Eskumen funtzionalen eskudantzia.

Arau hausteez arduratzeko, espedientea irekitzeko, bere Instruktoorea eta Idazkaria izendatzeko eta zigorrak ezarri eta betearazteko EMFk duen diziplina ahalmena beronen Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen bidez gauzatuko da, Araudi honetako 31. artikuluan aurreikusten dena salbuespentzat hartuta.

Ebaztea EMFri dagokion bigarren instantziaz arduratzeko eskumena izango du, halaber, Batzorde horrek.

34. artikulua.- Bateriaezintasunak.

Gai zehatz batean aldi berean eskumena izan dezaketen bi organo edo gehiago daudenean, pertsona berak ezin du izan organo horietako batekoa baino gehiagotakoa.

3. ATALA

Prozedura izapidetzea

35. artikulua.- Prozeduraren hasiera.

Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen probidentziaren bidez emango zaio hasiera prozedurari, ofizioz, interesdunak hala eskatuta edo Kirol Diziplinako Euskal Batzordearen eskariz. Prozedura ofizioz hasi ahal izango da organoaren beraren ekimenez edo ondo arrazoitutako salaketaren ondorioz.

36. artikulua.- Babes neurriak.

Prozedura hasten denean eta proportzionaltasun printzipioari jarraituz, Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak egoki iruditzen zaizkion behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, izan daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko.

Behin-behineko neurriak prozeduraren edozein unetan hartu ahal izango dira, bai ofizioz eta baita Instruktoarearen arrazoizko mozioaren bidez ere. Hartuko den erabakia behar bezala arrazoitu behar da. Ezin izango da konpon ezin daitezkeen kalteak eragin ditzakeen behin-behineko neurririk hartu.

37. artikulua.- Espedienteak bateratzea.

Diziplina organoek, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, espedienteak bateratzea erabaki dezakete, objektiboki edo subjektiboki identitate eta antzekotasun nahikoa eta arrazoizkoa dagoenean eta horrek guztiak bateratuta bideratzea eta ebazpen bakarra ematea gomendatzen duenean.

Bateratzeko probidentzia prozeduran jakinaraziko zaie interesdunei.

38. artikulua.- Prozedura motak.

Lehiaketa araei dagokien arau hausteak, proba edo lehiaketa garatzen ari den bitartean Epaile, Arbitro edo Lurralde Ordezkariek ezarri beharreko zigorrak dagozkienak, Araudi honetako 31. artikuluan aurreikusten den prozeduraren bidez izapidetuko dira.

Lehiaketa araei dagozkien gainerako arau hausteak Atal honetan aurreikusten den ohiko prozeduraren arabera zigortuko dira.

Kirol arau orokorreko dagozkien arau hausteak Araudi honetako 40. artikuluan aurreikusitako ohiz kanpoko prozeduraren arabera zigortuko dira.

39. artikulua.- Ohiko prozedura.

1.- Lehiaketa araei dagozkien arau hausteengatik auzipetzeko eta, hala dagokionean, zigorra ezartzeko, ohiko prozedura aplikatuko da, eta lehiaketaren garapen normala ziurtatuko du, interesdunei entzuteko izapidea eta errekurtso eskubidea ere bermatuz.

2.- Honako arau hauek beteko dira:

- a) Ohiko prozedura probidentziaz eta EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen erabakiz hasiko da, eta Instruktoea izendatu ahal izango du honen izendapena komenigarri dela iruditzen bazaio, eta Idazkaria ere izendatu ahal izango du. Espedientea bideratzen lagunduko dio Idazkariak Instruktoeari.
Instruktoea izendatzea erabakiz gero, adinez nagusi den eta nahikoa ezagutza dituen edonor izendatu ahal izango da Instruktoea, eta berdin Idazkaria izendatzea erabakiz gero ere. EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko kide den edonor izenda daiteke funtzio hori betetzeko, baina kasu horretan ezin izango du parte hartu eta botorik izan honen bileretan, bilera horietan bideratutako espedientean dagokion zigorraren ezarpenari buruz jardun behar dutenean.
Prozedura ofizioz, EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen ekimenez edo nahikoa arrazoitutako salaketa baten ondorioz abiarazi ahal izango da.
- b) Instruktoeak eta idazkariak parte ez hartzea eta errefusatzeko eskubidea izendapenaren berri izaten duen egunaren hurrengotik hasita gehienez ere hiru eguneko epean baliatu behar da.
- c) Espedientearen hasiera eta, Instruktoea izendatzen bada, honen izendapena eta Idazkaria izendatzen bada, honen izendapena, interesdunari idatziz eta zehatz-mehatz jakinaraziko zaio, egozten zaizkion egintzekin batera.
- d) Aginduzko entzunaldiaren betebeharra bete ahal izateko, interesdunak jakinarazpena jasotzen duen unetik hasita bi laneguneko epea izango du, bere interesak defendatzeko komenigarriak iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta kasuarekin lotuta eskatzen duen froga egiteko. Guztia idatziz aurkeztu beharko du, eta EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari zuzendu beharko dio.
Eman beharreko frogaren bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen duenean, adierazitako epe hori beste hamar egunez luza daiteke gehienez ere, EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen erabakiz, ofizioz edo Instruktoeak edo interesdunak hala eskatzen duenean.
- e) Lehiaketa bat jokatzeko ari den bitartean egindako arau hausteak direnean eta aktetan edo honekin batera doazen eranskinetan horren berri jasotzen denean, entzunaldia egiteko ez da beharrezkoa izango diziplina organoak aurretiaz horretarako eskaera egitea, eta ez da jakinarazpen, idatzi edo inolako probidentziaz beharko; eta interesdunak, egoki irizten badio, aurrez zuzenean agiri horien edukiarekin edo bere eskubidearen arabera komenigarriak iruditzen zaizkion frogekin lotuta dagozkion alegazioak edo adierazpenak azaldu beharko ditu, eta bidezkoa denean, egokiak diren frogak aurkeztu beharko ditu, lehiaketa hori izan den egunetik hasita hiru egun naturaleko epean; une horretan Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeko idazkaritzan formulatu diren alegazioak edo eskaerak jasota egon beharko dute.
- f) Instruktoeak, halakorik bada, egintzak zehazteko eta egiaztatzeke eta, halaber, zigorra jaso dezaketeko arau hausteak zehazteko egin beharreko zuzemenak bideratzeko agindua emango du.
- g) Aurkeztuko diren froga motak eta hauek praktikatzeko modua administrazio prozedura erkidearen legeetan eta prozesukoetan aurreikusten denaren arabera garatuko dira.

- h) Alegazioak aurkezteko epea eta froga epea edo hauen luzapen aldia amaitu ondoren, Instruktoareak, halakorik bada, egindako guztia, dagokion txostenarekin eta gomendioarekin, EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordera igorriko du, eta honek hiru laneguneko epean eta luzatzeko aukerarik gabe bere ebazpena emango du, bestelako izapiderik gabe.
- i) Alegazioak aurkezteko epearen eta froga epearen barnean, ebazpena eman aurretik, bai Instruktoareak edota bai EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak entzun diezaioten aukera izango du interesdunak, eta espedienteari lotuko zaion aktan bere agerraldiaren emaitzaren berri utziko da.
- j) Akusatuak izan ezik gainerako interesdunak edozein unetan espedientearen agertu ahal izango dute, froga epea eta alegazioak aurkezteko epea amaitu arte; eta egin den guztia helaraziko zaie, bereak proposatu eta gauza ditzaten; dena den, horrek ez du inoiz dagozkien izapideen epeak luzatu egingo direnik esan nahi izango.

40. artikulua.- Ohiz kanpoko prozedurak

- a) Ohiz kanpoko prozedura kirol arau orokorrak hausten direnean auzipetzeko eta, bidezkoa denean, zigorrak ezartzeko aplikatuko da, eta legediak oro har ezartzen dituen printzipio eta arauarekin, Eusko Jaurlearien Kultura Sailaren urriaren 10rreko 7/1989 Dekretuarekin, Kirol Diziplinari buruzkoarekin, eta Araudi honetan dauden gainerako xedapenekin bat etorriko da.
- b) EMFren Kirol diziplina eta lehiaketa Batzordearen probidentziaz hasiko da prozedura, ofizioz, interesdunak hala eskatuta, edo Kirol Diziplinako Euskal Batzordearen eskariz. Ofizioz hastera organoaren beraren ekimenez edo arrazoituta salaketaren ondorioz gerta daiteke.
- c) Horretarako, ustezko arau hauste baten berri izaten duenean, EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak, espediente bat abiarazteko, isilpeko informazioa izapidetzea erabaki dezake, espedientearen abiatzea edo, hala dagokionean, jarduerak artxibatzea erabakiko duen probidentzia eman aurretik.
- d) Espedienteari hasiera ematen dion probidentziak Instruktoarearen izendapena izango du; arlo horretan aditua izan beharko du honek, eta espedientearen izapidetzeaz arduratuko da.
- e) Egoki ikusten den kasuetan, probidentziak Instruktoari espedientearen izapidetzean lagunduko dion Idazkariaren izendapena ere ekarriko du.
- f) Espedienteari hasiera emateko probidentzia zehaztutako erregistroetan erregistratuko da, Araudi honetako 30. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta arrazoitua izango da.
- g) Instruktoari eta, Idazkaria dagoenean, Idazkariari, administrazio prozedura erkiderako estatuko legedian aurreikusten diren abstenitzeko eta errefusatzeko arrazoiak aplikatuko zaizkie.
- h) Errefusatzeko eskubidea interesdunak hiru laneguneko epean baliatu ahal izango du, izendapena egiten duen probidentziaren berri izaten den egunaren biharamunetik hasita; eta berau eman zuen organoari helaraziko dio, honek hiru eguneko epean ebatz dezan.
- i) Onartzen diren erabakien aurka ez da errekurtsorik izango, errefusatzeko aukera gora behera, prozedurari amaiera emango dion ekintzaren kontra administrazio errekurtsioa edo errekurtsio juridikzionala, dagokiona, jarriz.
- j) Instruktoarek egintzak zehazteko eta egiaztatzeke eta, halaber, zigorra jaso dezaketean arau hausteak zehazteko egin beharreko zuzemenak bideratzeko agindua emango du.
- k) Prozedurarako garrantzia duten egintzak edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango dira, Instruktoarek froga epea zabaltzea erabakitzen duenean, eta honek gehienez hamabost lanegun eta gutxienez bost lanegun iraungo du; eta interesdunak behar besteko aurrerapenez barauk noiz eta non egingo diren adieraziko zaie.
- l) Interesdunak, edozein unetan baina froga epeari hasiera eman aurretik, edozein froga egitea eska dezakete, edota espedientearen modu egokian eta zuzenean ebatz dadin interesgarri izan daitezkeenean zuzenean eman ditzakete.
Interesdunak proposatutako froga egiteari berriaz edo esan gabe uko egiten bazaio, hauek erreklamazioa aurkez diezaiokete hiru laneguneko epean EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari, eta honek bere erabakia eman beharko du hiru eguneko epean. Dena den, erreklamazioa jartzeak ez du inoiz espedientearen izapidetzea geldiaraziko.

- m) Bideratu diren jarduerak kontuan hartuta eta, prozedura hasi zenetik hasita gehienez ere hilabeteko epean, Instruktoareak espedientea artxibatzea proposatuko du, edo dagokion kargu orria formulatuko du, eta bertan akusatuari egotzen zaizkion egintzak, bertan izan diren inguruabarrak eta ustezko arau hausteak adieraziko dira, eta baita aplikagarri izan daitezkeen zigorrak ere.
EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari aipatutako epe hori luzatzeko eska diezaioke Instruktoareak, bere eskaera ondo arrazoituz gero.
- n) Kargu orrian, Instruktoareak ebazpen proposamen bat aurkeztuko du, eta interesdunei beronen berri emango zaie, gehienez ere hamar laneguneko epean, beren eskubide eta interesak defendatzeko egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.
Halaber, behin-behineko izaeraz neurririk hartu bada, kargu orrian neurri horiei eutsi egiten zaien edo, aldez, kendu egiten diren adierazi beharko du Instruktoareak.
- o) Aurreko idatz-zatian adierazitako epea amaitzen denean, Instruktoareak, beste izapiderik egin gabe, espedientea EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari igorriko dio, eta alegaziorik aurkeztu bada, alegazio horiei erantsiko die honek.
- p) Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordearen ebazpenak kirol diziplinako espedienteari amaiera emango dio, eta gehienez ere hamar laneguneko epean eman beharko du, Instruktoareak espedientea igortzen duen egunetik hasita.

4. ATALA

Jakinarazpenak, ebazpenak eta errekurtsioak

41. artikulua.- Jakinarazpenak.

Prozeduran interesdunei eragiten dien probidentzia edo ebazpen oro ahalik eta epe laburrenean jakinarazi zaie interesdun horiei, gehienez ere 10 laneguneko epean.

Administrazio prozedura erkidearen legedian aurreikusten denaren arabera egingo dira jakinarazpenak. Jakinarazpenak postaz, faxez, euskarri magnetikoan edo zuzenbidearen arloan baliozkoa den beste edozein bide erabiliz egin daitezke.

Ebazpenaren testu osoa izan behar dute jakinarazpenek, eta horrekin batera, behin betikoa den edo ez azalduko da, egin daitezkeen erreklamazioak edo errekurtsioak adieraziko dira, eta zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zer epe dituzten ere azalduko da.

42. artikulua.- Jakinarazpen publikoak.

Jakinarazpen pertsonalaz gain, zigor ebazpenen jakinarazpen publikoa egitea erabaki daiteke, indarrean diren legeen arabera, pertsonen ohorea eta intimitatea babesteko eskubidea errespetatuz.

Dena den, probidentziek eta ebazpenek ez dute eraginik izango interesdunentzat pertsonalki jakinarazten ez zaien bitartean, ondorengo paragrafoan adierazten diren kasuetan izan ezik.

Araudi honetako 22. artikuluan aurreikusten diren zigorretarako, zigorra berehala betetzekoa izan dadin nahikoa izango da eskumena duen diziplina organoak horren berri publikoki ematea, baina gero jakinarazpen pertsonala egin beharko da, eta erreklamazio eta errekurtsioetarako epea azken jakinarazpen hori egiten denean hasiko da.

43. artikulua.- Zioen azalpena.

1.- Kirol diziplinaren arloko prozeduretako probidentziek eta ebazpenek arrazoituak izan behar dute, eta interesdunari jakinaraziko zaizkio, erabaki edo akordioen edukia eta kasu bakoitzean egin ahal izango diren erreklamazioak edo errekurtsioak adieraziz, gehienez ere hartzen diren egunetik hasita hamabost laneguneko epean.

2.- Jakinarazpenak interesdunen bizilekuan edo egoitza sozialean egingo dira, gutun erregistratuaren, telegramaren, telefaxaren edo interesdunak jaso duela ziurtatzeko aukera ematen duen beste edozein komunikabideren bidez.

3.- Akordioaren edo ebazpenaren garrantziak edo eraginak hala aholkatzen duenean, diziplina organoak edo hau atxikita dagoen elkarte edo federazio institutu edo erakundeak berau argitaratzea erabaki dezake, betiere indarrean dauden legeen arabera pertsonen ohorea eta intimitatea babesteko eskubidea errespetatuz.

44. artikulua.- Erreklamazioak aurkezteko epea.

1.- Araudi honetan edo Estatutuetoako xedapenetan edo dagozkion araudietan berariaz erreklamazioak edo errekurtsioak aurkezteko eperik zehazten ez bada, bost laneguneko epea izango dute interesdunek erreklamazioa edo errekurtsioa jartzeko espresuki akordio edo ebazpen bat hartu bada; eta halakorik ez badago, hogeita hamar laneguneko epea izango dute.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako epeak ondoren adierazten diren moduan hasiko dira: lehenengoa, erreklamazioa edo errekurtsioa aurkeztu zaion akordia edo ebazpena jakinarazi den egunaren biharamunetik, eta bigarrena, artikulua honetan zehazten denaren harira, erreklamazioa edo errekurtsioa ezetsizat ulertu behar den egunaren hurrengotik.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa betetzeko eta Araudi honetan edo Estatutuetoako xedapenetan edo dagozkion araudietan berariaz eperik zehazten ez bada, kirol diziplinaren arloan egiten diren erreklamazioak edo errekurtsioak ezetsizat edo ez onartutzat hartuko dira hauek aurkeztu eta hiru hilabeteko epea iragaten denean, nahiz eta horrek ez duen eraginik eskumena duen organoak espresuki akordioak edo ebazpena hartzeko duen betebeharrean.

45. artikulua.- Erreklamazioak idaztea.

1.- Erreklamazioak edo errekurtsioak beti idatziz gauzatu eta aurkeztuko dira, hauek aztertu eta ebazteko eskumena duen organoaren egoitzan edo administrazio prozedura orokorra arautzen duten xedapenetan aurreikusten diren tokietan.

2.- Erreklamazioen edo errekurtsioen idatziek honako hauek izan behar dituzte:

- a) Erreklamazioa edo errekurtsioa jarri duena identifikatzeko datuak. Eta kontu honetan interesa duten gainerakoek, beren legitimazio aktiboa edo pasiboa azalduz.
- b) Erreklamazioa edo errekurtsioa zein egintza, akordio edo ebazpenen aurka jarri den zehazten duen adierazpen argia, eta azken kasu horretan, espresuki hartu direnean berorien kopia ere emango da.
- c) Erreklamazioaren edo errekurtsioaren arrazoi diren alegazioen azalpena, eta beronen oinarriak edo aginduak.
- d) Praktikatzeko proposatzen diren frogen zuzemenak.
- e) Eta azaltzen diren asmoen adierazpen garbi eta zehatza.

Halaber, errekurtsioa bigarren instantzian edo hurrengoetan jarri bada, aginduz aurrez bete beharreko instantzia guztiak bete direla egiaztatu beharko da.

46. artikulua- Errekurtsioak.

1.- Kirol diziplinaren arloan klubek eta elkarteek hartutako erabakien eta ebazpenen aurka errekurtsioak jarri ahal izango dira, partaide diren lurralde federazioan.

2.- Kirol diziplinaren arloan lurralde federazioek hartutako erabaki eta ebazpenen aurka errekurtsioa jarri ahal izango da EFMn.

3.- Kirol diziplinaren arloan EMFk hartutako erabaki eta ebazpenen aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Kirol Diziplinako Euskal Batzordean.

4.- Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak hartutako erabaki eta ebazpenek amaiera ematen diote administrazio bideari, eta aplikagarri diren arau juridikozkoak jarraiki, errekurtsioak jarri ahal izango dira hauen kontra.

47. artikulua.- Errekurtsioen ebazpena.

1.- Erreklamazio edo errekurtsioen ebazpenak errekurtsioa jarri zaion erabakia edo ebazpena berretsi, aldatu edo baliogabetu egingo du, eta aldaketaren bat egiten bazaio, ezin izango dio interesdunari kalte handiagoa eragin, erreklamazioa edo errekurtsioa egin duen bakarra bera bada.

2.- Erreklamazio edo errekurtsio batez arduratzeko eta berau ebazteko eskumena duen organoak espedientearen akats formalik baden aztertzeko eta adierazteko gaitasuna izango du ofizioz, eta hala gertatu bada, irregularitasuna egin den unera edo izapidera arte atzera egitea erabaki dezake, eta errekurtsioa ebazteko formula espresuki adieraziko da.

48. artikulua.- Ebazteko betebeharrak.

Kirol diziplinako organoen aurrean planteatutako eskaerak edo erreklamazioak espresuki gehienez ere hamabost laneguneko epean ebatzi beharko dira, EMFren kirol espezialitateei dagozkien Lehiaketa Araudietan gatazkak konpontzeko bestelako epeak zehazten direnean salbu.

Hamabost laneguneko epea, edo aipatutako salbuespenean adierazitakoa, pasatu bada eta espresuki ebazpenik eman ez bada, ez dela onartu ulertuko da.

Kirol diziplinaren eta lehiaketaren arloan EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari egin ahal zaizkion kontsultak idatziz aurkeztu beharko dira, eta hogeit hamar laneguneko epean ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Indargabetuta eta baliorik gabe gelditzen dira EMFren Kirol Diziplinari eta Lehiaketari buruzko Araudi honetan zehazten denaren aurka doazen arau eta xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPEAN.- EMFren Kirol Diziplinari eta Lehiaketari buruzko Araudi hau EMFren Zuzendaritza Batzordeak eta Batzarrak onartzen duenean sartuko da indarrean.